

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Nabarikoa den bezala, bakoitzak bere partetik jarri behar du enpresa bat aurrera eramateko eta taldearen helburuak lortzeko; horregatik, L.A.M. taldeko kide bakoitzak proiektuari jarri behar dioguna aipatuko dugu, gure zaletasun eta abilezietan oinarrituta.

Gure egitasmoa martxan jartzean, diru-sarreraren beharra izango dugu, gure proiektua nahiko garestia baita, halaber, diru-irteerak izango ditugu eta hauen jarraipena eta administrazioa izatea funtsezkoa dela uste dugu. Diruaren administrazioarekiko Marina eta Nereak oinarritzko ezagutzak dituzte; izan ere, Nereak oinarritzko banku ezagutzak ditu, bere gertuko ezagun batek banku munduan lan egiten duelako; Marinak berriz, dirua maneiatzeko abilezia du, beraz, badaki dirua aurrezten eta bere bulkadak kontrolatzen ditu; dirua gauza hutsaletan gasta ez dadin.

Balorezko proposamenean aipatu dugun bezala, aplikazio bat eta web gune bat diseinatu behar dugu gure zerbitzurako. Honen garapenean, Luken eta Nerea izango dira arduradunak. Biak aplikazioen diseinu, sorkuntza eta kudeaketaren inguruko klaseak hartu zituzten, beraz, oinarritzko ezagutzak dituzte honi buruz.

Gure proiektuari indarra emateko, bezeroekiko gertutasuna adieraztea ezinbestekoa litzateke. Horretarako, salmentarako eta antolaketarako abileziak dituen pertsonak beharrezkoak lirateke, beraz, Elene eta Anne izango dira.



Dena prestatzeko eta gordetzeko biltegi bat beharko dugu, baina Donostia zentroan zerbait alokatzea oso garestia da, horregatik Eleneren aitonaaren arrebak erabiltzen ez duen lokalari erabilera bat ematea utziko digu, hiriaren kanpoaldeko lokal bat da. Bertan, ordenagailu bat izango dugu, web gunea eta sare sozialak eramateko, e-maila erantzuteko...; baita mugikor bat, deiak jaso eta egin ahal izateko. Teknologia hauek guk geuk eskuragarri ditugu, guztiok baitugu etxean mugikor edo ordenagailu bat.

Aterkiak adibidez ahaztu ezin dugun zerbait dira, eta hauek lortzeko Annek ditu abilezia egokienak eta pertsonekin komunikatzeko erraztasuna agertzen du, jendea konbentzitzeko abileziarekin batera, nagoziaztaile bikaina baita.

Ez gara gure enpresaren eskubideez kezkatu beharko, Marinaren aitak zuzenbidea ikasi baitzuen eta abokatu baita, hortaz Marinaren kontaktuarekin egingo dugu prozesu hori.



Hau guztia aipatu ondoren, begi-bistaz ikus dezakegu hasiera batean kostu asko izango ditugula, izan ere, gure kabuz ezin dugu zerbitzu guztia aurrera atera, beraz, gure taldetik kanpo dagoen jendearen eta enpresen laguntza behar dugu eta honek kostuak edukitzea suposatzen du. Horregatik, hasieran, gutako bakoitzak 10.000 euro jarri beharko ditugu, horrela denok batera 50.000 euro edukiko ditugu eta proiektuarekin hastean, lasaitasun bat emango digu.


aterkeasy